

PASAIA / Mende Erdiko ibilbidea ospatuko du liburutegiak

Abendurako kultur arloko hainbat ekimen antolatu dituzte 50. urteurrena behar bezala ospatzeko

Olatz Mitxelena. Antxo

33 urtez liburuzain izandakoari egingo zaion aitortzarekin hasiko dira datorren abenduaren 18an, Pasai Antxoko Udal Liburutegiaren 50. urteurrena ospatzeko ekimenak. Altamira Puentek, antxotarrentzako Altita ezizenez ezagunagoak, jasoko du aipatu omenaldia, bera izan zelako hastapenetan liburutegia aurrera ateratzeko ardura izan zuena. Antxoko Udal Liburutegiak 1957. urtean zabaldu zituen ateak lehenbizikoz, Andres Aramendi alkate zela. Diotenez, Gipuzkoan zabaldu zuten hirugarren liburutegirik zaharrena da, Tolosa eta Eibarren atzetik.

Alkateordetzatik Kultur Etxera

Iaz bota zuten Alkateordetzaren eraikin zaharrean zegoen udal liburutegia lehen. Kasik hiru hamarkada eman zituen han, 1985. urtean Kultur Etxea inauguratu zuten arte. Orduz geroztik han da, Hamarretxeta kalean, txikientzako nahiz eta helduentzako ikasguneekin atondua.

Altamira Puentesek bi garaia ezagutu zituen liburuzain gisa. Oposizioak oraindik egiten ez zirenean hasi zen bera lanbidean, baina gustuko zuen bere jarduna eta denborarekin igarri egin zen. Pasaian kultura sustatze aldera, hamaika ekimen lehiaketa eta bestelako jarduerak bultzatu zituen bere garaian.

Horregatik ez da kasualitatea bere omenaldiak, Pasaia Hiria 14. Olerki Lehiaketaren sari banaketa rekin bat egin izana. Berak jarri zuen martxan poesia lehiaketa, eta gerora literaturaren munduan bere tokia lortu duten poeta askok eskertu izan diote ahalegin hura.

Abenduaren 18an, omenaldiaren ondotik, aurtengo irabazleei saria eman eta poemak biltzen dituen liburua aurkeztuko dute.

Sorginarri bildumaren hirugarrena

Liburutegi baten urteurrenaren ospakizunetan, ez litzateke legezkoa liburuei ez erreparatzea, eta horri ere ez diote ihes egiten utzi antolatzaileek. Pasaia historia ardatz duen Sorginarri bildumaren hirugarren alea, abenduaren 19an aurkeztuko dute, liburutegian bertan.

Gaindituen gogoia (Pasaia, 1931-1939) du izenburu gerra garaia ardatz

dituen hirugarren liburuak. Bilduma beraren baitan argitaratu dituzte aurretik Ondare industrialak Pasaian: defentsa eta zabalpena eta Pasaia 1805-2005. 200 urteko batasuna liburuak.

Txikiak ahaztu gabe

Antxoko Udal Liburutegiak urtero antolatzen dituenen artean beste klasikorik bada, hori Haurren Gabonetako Marrazki eta Pintura Lehiaketa da. Liburutegiak 50 urte bete baditu, aipatu lehiaketak 44. aldia du. Sari banaketa jendarean egiten dute beti, eta aurten ere hala izango da. Herriko marrazkilari iaioenak hilaren 20an jasoko dute saria. Ordurako parte-hartzaile guztien marrazkiak ikusgai izango dira Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

EGITARAUA

Abenduaren 18an. 19:30etik aurrera, 1960-1993. urteen bitartean Antxoko liburuzaina izandako Altamira Puenteri omenaldia. Ondoren, Pasaia Hiria 14. Olerki Lehiaketaren sari banaketa eta poemategiak jasotzen dituen liburuaren aurkezpena.

Abenduaren 19a. Gaindituen gogoak (Pasaia, 1931-1939) liburuaren aurkezpena, 20:00etan.

Abenduaren 20an. Haurren Gabonetako 44. Marrazki eta Pintura Lehiaketaren sari banaketa, 18:00etan.

Oharra. Ekitaldi guztiak Antxoko Udal liburutegian izango dira (Hamarretxeta, 13).